

**II. ATALA****BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO TOKI ADMINISTRAZIOA****Basauriko Udala****Kaleartean jarduerarik gabeko merkataritza-lokaletan esku-hartze iragankorra egiteko Oinarriak onartzea.**

Alkateak 2018ko azaroaren 27ko 4169 dekretuaren bidez V Kaleartean jarduerarik gabeko merkataritza-lokaletan esku-hartze iragankorra egiteko oinarriak onartu dira.

**«KALEARTEAN», JARDUERARIK GABEKO MERKATARITZA-LOKALETAN ESKU-HARTZE IRAGANKORRAK EGITEKO TOPAKETA: OINARRI ARAUTZAILEAK. MERKATARITZA ATALA.****1. Diruz lagun daitekeen kontzeptua**

Diru-laguntza lerroa	«KALEARTEAN» sariak ematea
Aurrekontu-partida	23431048099
Partidaren deskribapena	Ohiko transferentziak familiei. Ekonomia eta merkataritza sustatzea
Zenbatekoa	9.000,00
Diru-laguntza emateko prozedura	Sariak

**2. Diruz lagun daitekeen jarduera**

Beste udalerritan gertatu bezalaxe, Basauriko kale batzuetan ere ugariak dira hutsik egon, eta inolako jarduerarik ez duten lokalak. Bada, errealitate hori bizi izan duten edo bizi duten toki horietako askotan artea, diseinua eta sormena baliatu dituzte eremu horiek biziberritzeko. Proposamen arrakastatsua da jarduerarik ez duten lokaletako barrualdeak, kanpoaldeak edota pertsianak erabiltzea sormen-lan iragankorretarako euskarri gisa. Horren lekuko dira nazioarteko zenbait ekimen. Gainera, orain arte hutsik egon diren eremuetan jarduera sortzeak biziberritze soziala eta ekonomikoa ere badakar. Erabilerarik gabeko espazio horiek jendea erakarriko dute, eta pertsona horiek hurbileko dendak eta ostalaritza-lokalak ere bisitatuko dituzte. Eremuan jarduera sortzeak bisitari gehigarriak erakarriko ditu eta, beraz, areagotu egingo da jarduera ekonomikoa.

Deialdi honen helburua da hautatzea zein esku-hartze garatuko diren «Kaleartean» ekimenean (Basauri, 2019ko maiatzak 31, eta ekainak 1, 2, 7, 8 eta 9).

Honako gai hauen gainean aurkeztu ahal izango dira proposamenak:

- Arte murala.
- Sormen digitala.
- Sormen grafikoa.
- Sormen interaktiboa.
- Arkitektura eta hirigintza.
- Erakusketa-formatu berriak.
- Arte eszenikoak.
- Musika-sormena.
- Bideo-sormena.
- Esperimentazioa.
- Diseinua.



- Laborategia.
- Beste diziplina batzuk.

### 3. Jasotzaileak

Sortzaileei zuzendutako diziplinarteko deialdia.

Adin nagusiko norbanako edo taldeei zuzendutako deialdia da hauxe, horien herritartasuna edozein izanda ere.

Taldeek, aurkeztutako proposamenetan, ordezkari bat izendatu beharko dute, «Kaleartean» ekimeneko antolatzaileekin harremanetan egoteko.

### 4. Proposamenak aurkezteko epea

Deialdian ezarritakoa.

### 5. Lanak gauzatzea

Esku-hartzeak gauzatzeko 10 eremu eskainiko dira. Norbanako edo talde bakoitzak gune bakoitzerako hiru proposamen aurkeztu ahal izango du, edizio honetan. Hori bai: bakarra hautatu eta gauzatu ahal izango da.

Basauriko Udalaren webgunean ([www.basauri.eus](http://www.basauri.eus)) eta «Kaleartean» ekimenarenean ([www.kaleartean.com](http://www.kaleartean.com)) argitaratuko dira eremu bakoitzari dagozkion ezaugarri teknikoak, proposamenak aurkezteko epea zabaldu eta gero.

Parte hartu ahal izateko, norbanako edo talde bakoitzak bere proposamena aurkeztu beharko du, non honako hauek jaso beharko baitituzte:

- Proposamenaren laburpen-fitxa (oinarri hauen eranskinetako ereduen arabera). Gehienez ere, 2MB-eko neurria.
- Proposamena osatu, eta berau ulertzen lagunduko duen irudia: moodboarda, bisualizazioa, eskema, storyboarda eta beste. Irudiak pdf, jpg edo png formatua izan behar du eta, gehienez ere, 6MB-eko neurria.

### 6. Kategoriak

Zenbait kategoria finkatu dira, norbanakoak/taldeak erakusketen arloan duen eskarmentuaren arabera, eta beren jatorriaren arabera.

Eskarmentuaren arabera, hauexek:

- a) «*Hasiberriak*»: Antzeko ekimenetan parte hartu ez duten norbanako edo taldeei zuzenduta. Deialdi honen bidez aukera izango dute erakusketen eremuaganako lehen hurbilketa bat egiteko. Era berean, sortzaile berriak ezagutzeko eta hasten ari direnei aukera bat emateko tresna ere izango da.  
10 esku-hartzeetatik 4, kategoria horretakoak izango dira.
- b) «*Seniorrak*»: Antzeko ekimenetan parte hartu duten norbanako edo taldeei zuzenduta. Kategoria honetan parte hartzeko, izandako parte-hartze esanguratsuenak aipatu beharko dituzte.

Jatorriaren arabera:

- a) «*Bertakoak*»: Ekimena Basauriko Udalak antolatzen du, besteak beste, herriko sortzaileen lana sustatzeko. Beraz, logikoa dirudi kategoria berezi bat sortzea udalerrian errolatuta daudenentzat. Taldeen kasuan, berriz, kideetako batek, gutxienez, bete beharko du baldintza hori. Hautatutako 10 proposamenetatik, 2, gutxienez, bertako norbanako edo taldeentzat izango dira.  
«Bertakoak» kategoria honetarako jasotako proposamenek ez badituzte betetzen epaimahaiak ezarritako baldintzak, puntu hau bete barik geratu ahal izango da.
- b) «*Orokorra*»: adin nagusiei buruz xedatutakoa betetzen duen edozein norbanako, kolektibo edo talde.

Bilera egingo da hautatutako norbanako edo taldeekin, plangintza eta esku-hartzeak egokiro antolatzeko.



## 7. Proposamenak aurkezteko tokia eta epea

Euskarri fisikoan, Herritarrentzako Arreta Zerbitzuan; eta euskarri digitalean, proposamena bidalita Basauriko Udalaren webgunean ([www.basauri.eus](http://www.basauri.eus)) eskuragarri jarriko den inprimakiaren bitartez.

Bakarrik onartuko dira pdf formatuan egon eta, gehienez ere, 8MB-eko neurria duten proposamen digitalak (laburpen-fitxak, gehienez ere, 2MB; eta proposamena osatzeko irudiak, gehienez ere, 6MB).

Proposamenak aurkeztu ahal izango dira deialdi-dekretua Bizkaiko Aldizkari Ofizialean argitaratzen den dataren biharamunetik aurrera.

## 8. Hautatze-batzordea eta irizpideak

Parte-hartzaile guztiei berretsi egingo zaie beren proposamenak egokiro jaso direla. Horrek esan nahi du egiaztatu egingo dela proposamenek bete egiten dituztela deialdian zehaztutako baldintzak; proposamenak jaso ahala egingo da egiaztatzea.

Hautatze-batzordea batu, eta norbanako edo taldeekin harremanetan jarriko dira, proposamenak behar bezala ebaluatzeko informazio osagarria edo argibideak behar badituzte. Hautatze-batzordea eratuko dute artean, kulturean, hirigintzan edota diseinuan ibilbide profesionala eta ospea duten pertsonak. Proposamen deigarrienak aukeratuko dituzte, honako irizpide hauen arabera:

- Espazioaren/lokalaren ezaugarrietara egokitzea (espazioa egokiro erabiltzea).
- Proposamenaren bideragarritasun teknikoa.
- Baliabide materialen erabilera jasangarria.
- Obra jatorrizkoa izatea (alegia, «Kaleartean»erako ad hoc sortua edo egokitua).
- Ikus-entzuleekin elkarreragina sortzea.

Basauriko Udaleko alkate udalburuak izendatuko ditu epaimahaikideak, dagokion alkatetza-dekretu bidez. Beste alde batetik, epaimahaiak bertaratuen botu-kopuruaren gehiengo soilez hartuko ditu erabakiak, eta epaimahaiburuak kalitatezko botua izango du, berdinketarik suertatuz gero.

## 9. Sariak ematea

Deialdi honetako sariak norgehiagoka prozeduraren bitartez emango dira, eta hautaketa egingo duen epaimahaiak horietakoren bat eman gabe utzi ahal izango du. Banatuko diren sarietako legez aurreikusitako atxikipenak egingo zaizkie.

- Proposamenak aukeratu, eta norbanako edo taldeek parte hartuko dutela konfirmatu eta gero, epaimahaiak hautatutako lanen zerrenda aurkeztuko du, eta 900,00 euroko sariak banatuko dira, sarituek beren lana gauzatu dezaten.

Kategoria bakoitzerako hautatutako sariak honelaxe ordainduko dira:

- Aurreikusitako zenbatekoaren erdia ordainduko da epaimahaiak proposamenak hautatu eta gero.
- Gainerakoa, esku-hartzea burutu eta gero ordainduko da.

Ahal dela, Basauriko dendetan erosi beharko dute norbanako edo taldeek proposamena gauzatzeko beharrezkoa duten materiala. Antolatzaileek material-hornitzaileei buruzko informazioa emango diete.

## 10. Lanak gauzatzeko datak

- 2019ko maiatzaren 31n, eta ekainaren 1, 2, 7, 8 eta 9an egingo da «Kaleartean», udalerriko 10 tokitan.

Topaketa amaitu eta gero, parte-hartzaileek guneak batu eta hustu beharko dituzte, gehienez ere, astebeteko epean (hau da, ekainaren 17ra bitarte). Antolatzaileekin hitzartuko da guneok batzeko plangintza, aurretiaz.

Antolatzaileek beren esku dauden erraztasun guztiak emango dizkiete parte-hartzaileei, lanak egokiro gauza ditzaten.

**11. Baldintzak onartzea. Hautatutako proposamenek bete beharrekoak**

Hautatutako norbanako edo taldeek honako baldintza hauek bete beharko dituzte:

Ebazpena onestea. Zentzu horretan, joko da norbanako edo taldeek hautatuak izatea onetsi egiten dutela, baldin eta berariaz uko egiten ez badiote, jakinarazpena jaso edo hautatuak izan direla jasotzen duen ebazpena argitaratu eta 3 eguneko epean.

Proposamena gauzatzea deialdian aurkeztutako moduan.

«Kaleartean» en ezaugarrietako bat denez ikus-entzuleen eta sortzaileen arteko elkarrekintzarako guneak sortzea, guneek honako ordutegi hau bete beharko dute nahitaez, eta egileak bertan izan beharko dira:

- Maiatzak 31 eta ekainak 7 (ostirala, biak): 18:00-21:00.
- Ekainak 1 eta 8 (larunbata, biak): 11:30-14:30 eta 18:00-21:00.
- Ekainak 2 eta 9 (igandea, biak): 11:30-14:30.

Lanei buruzko edozein informazio, publizitate eta sustapenetan, eta haren zabalkundea egiterakoan, berau «Kaleartean» ekimenaren baitan garatu dutela adierazi beharko dute egileek.

Proposamenen irudi-eskubideak partekatu egingo dituzte egileak/ek eta Basauriko Udalak.

«Kaleartean» egin aurretik bilera batean parte hartzeko konpromisoa hartzen dute hautatutako guztiek. Bilera horren xedea izango da parte-hartzaileen arteko sinergiak sustatzea.

**12. Oinarriak interpretatzea eta onartzea**

Epaimahaiari dagokio oinarriok interpretatzea, udal-eskumenen kalterik gabe. Beraz, bertan aurreikusita ez dagoen edozertarako, epaimahaiak ebatziko du, eta ekimenaren funtzionamendu egokia bermatzeko beharrezkoak erabakiak hartu ahal izango ditu. Ekimenean parte hartzeak berekin ekarriko du deialdi honetan jasotakoa ezagutu eta onartzea, legeak aitortutako eskubideen kalterik gabe.

Antolatzaileek antzematen badute parte-hartzailearen batek ez dituela oinarri hauetan finkatutakoak betetzen, saria kendu ahalko diote, osorik ala zati batean.

Oinarri hauek edota, oro har, Diru-laguntzei buruzko azaroaren 17ko 38/2003 Lege Orokorrak xedatutako baldintzak bete ezean, egileak lehiaketatik kanporatuak izango dira eta, hala badagokio, aipatutako Legeak aurreikusitako itzultzeak eta zehapenak aplikatu ahal izango dira.

Basaurin, 2018ko abenduaren 10ean.— Alkatea, Andoni Busquet Elorrieta